



64. zk 2016ko ekaina

Berbarotarra



Agur Berbaroko txokoari

IBILBIDE LUZEAREN OSTEAN, EKAINAREN 1EAN ITXI EGIN BEHAR IZAN DUGU

Lekuren bat, aterperen bat, taberna bazterren bat, kale izkinaren bat... Denok dugu txoko gogokoren bat. Eta, toki horiek izaten dira ametsen epizentro. Leku horietan ezartzen direlako mundua aldatzeko oinarri ideologikoak edo, ezerezean gelditu arren, amestea merezi izan zuten horiek.

Berbarotarrok ere izan dugu gure txokoa, jan, edan eta berba, dena batera egitea posible zen lekua. Berbaroko txokoa ehunka lagun biltoki izan da urteotan, bazkideona eta bazkideon hurbilekpena. Hamaika batzar, bazkari eta jai antolatu ditugu bertan, eta heldu zaigu agur esateko eguna. Eta, penaz diotsogu agur horrenbeste bizipen batu dituen txokoari.

Ugazabaren kexek abiatu zuten bideari Udalak eman dio

amaiera. Txokoak ez ditu betetzen legeak exijitutako baldintzak, eta ixtera behartu gaituzte. Horrela bukatu da, 2016ko ekainaren 1ean, Berbaroko txokoaren ibilbidea.

Leku bat genuen biltzeko, baina ez zen biltzeko txoko bakarra. Jakin badakigu, Durango elkarrekin egoteko txokoz beteta dagoela. Izan ere, euskaldunon eta euskaltzaleon Durango amesteko eta ekiteko txokoz beteta dago.

Jarraituko dugu batzen, jaten, edaten eta berbetan. Jarraituko dugu ilusioak eraikitzen, planak egiten, eta proiektu berriei ekiten. Jarraituko dugu amesten. Orain arteko Berbaroko txokoan ez bada, gustura gauden Durangoko beste edozein txokotan.

Aitorrek ez du atsedetik hartzen. Egin ditu, bai, bidaia ikaragarri interesgarri eta aberasgarriak munduan zehar. Herriko bilbaduren artean egindakoak ere ez dira gutxi, oinetako-zolei zuloren bat baino gehiago eragingo zien, seguruenik. Orain gure artean ere badabil, Berbaroren habeak zutabeekin ondo lotzeko zamalanetan laguntzen.

Jon Anderrek harreman polita du letrekin, literatura zalea da. Antza, Berbaroren berbaroak liluratuta, berak ere gura izan du burrundara horren parte eta eragile izan, besteekin batera. Eta sartu da elkartearen liburu erraldoian, urte luzetan euskaltzale askoren artean idatzitakoan. Lerro eta margoen artean, seguru gaude zeureak ere hor agertuko direla.

Eskerrik asko bioi.

Ondo etorri, Aitor Beobide eta Jon Ander Urkiaga



Ondo etorri, Amaia Ugalde

Polito moldatzen da letrekin; esango genuke lagun dituela hizkiak eta berbak, eta lotu ere txukun lotzen ditu, "plastiko" barik, osagai natural apainekin. Anbotoko magal karetsuetatik irrist eginda, gurean hartu du ostatu; eta harrera egin diogu: esku batean euskara kontuak ipini, bestean bandeja. Azken hori zertarako den segituan ulertu du, besteari antzemateko laguntza beharko bazenu..., hor doa gaia, Amaia: "Udaleko langile batek gaztelaniazko paragrafo ulergaitza bidali dizu euskaratzeko". Bertso bat hamarrek txikian.

Eskerrik asko.

Maiatzean, GUKAtik HIKARA egin dugu salto



GUKAko kideok Durangaldeko hitanoan trebatu gura dugu. Edo, hitanoan barik, hitanoetan. Izan ere, eskualdeko herri bakoitzak berea du. Beraz, parte-hartzaileek erabakitzen dute zelan egin gura duten.

Hala, hika ez dakigunon eta badakigunon arteko topalekua sortu dugu, helburu bakarrarekin: lagun arteko giroan, hika aritzea. Bi asterik behin jarri dugu hitzordu ofiziala: eguenetan, iluntzeko 19:30ean, Plateruenan. Hala ere, taldeko animatuenak astero-astero bazten dira tertuliara.

Hurrengo hitzordua ekainaren 16an izango da, eta egun horretan erabakiko ditugu hurrengo zitak. Parte hartzeko ez da zertan izena eman. Nahikoa da gozoz etortzea. Hortaz, animatu! Tarte ederra pasako dugu!



"Atxaga, Lertxundi, Izagirre, Saizarbitoria eta Sarri batuko nituzke Plateruenean"

ENEKO BARBERENA Plateruena-ko kudeatzailea

Bi hilabete daramatzazu Plateruena. Arin joan zaizkizu?

Asteak intentsuak izan dira, baina, aldi berean, denbora oso arin pasatu zait. Ezagutzen eta entzuten nabil, eta, horretarako denbora hartu dut hasieran. Dagoenari eutsi, eta gauza berri batzuk planteatu nahi ditut. Orain arte gauzak ondo egin dira, eta helburua bide horretatik jarraitzea da.

Zelan ikusten du Durango arrasatear peto-peto batek?

Geografikoki ez daude urrun, baina egia da herri bakoitzak bere idiosinkrasia duela, eta Durangorena deskubritzen ari naiz orain. Oraindik ezagutza aberastea falta zait, baina Durangori kristoren aukerak

ikusten dizkiot. Gehienbat orain arte euskalgintzako jendearekin, Plateruena-ko bezeroekin eta Udaleko langile eta ordezkariekin izan dut harremana, eta hori baino gehiago da Durango.

Aisialdian ibili zara lanean luzaro, Txaxilipurdin. Zer eman dizu mundu horrek?

Izugarrizko alaitasuna. Gainera iruditzen zait herriaren alde egin ahal duzun gauzarik ederrenetako dela aisialdi elkarte baten kide izatea eta herriko ume eta gazteentzat gauzak antolatzea. Nik horretatik asko ikasi dut, eta ez nintzateke izango gaur egun naizena esperientzia hori barik.

Literaturzalea ere bazara. Poesia eta

narrazio liburuak daukazu argitaratuta. Jarraitzen duzu idazten?

Bai, jarraitzen dut. Idazteak asko lagutzen dit barruan dudana ateratzen. Gainera ez daukat inongo presiorik; ez naiz lehen lerroko idazlea eta askatasun handia daukat nahi dudana egiteko.

Zer ikusiko zenuke gustura Plateruena-ko oholtzan?

Gauza asko etorri zaizkit burura, baina bat esateko, gustatuko litzaidake mahai-inguru bat Hasier Etxebarriak 'Bost idazle' libururako elkarrizketatu dituen idazle denekin: Bernardo Atxaga, Andu Lertxundi, Koldo Izagirre, Ramon Saizarbitoria eta Joseba Sarrionandia. Bostak egotea hori. Ez litzateke txarra...

Elkarlanean jarraitu "dagigun!"

Maiatzaren 29an Ibilaldiaren 38. edizioa ospatu da Durangon "dagigun!" lelopean. Kurutzia eta Ibaizabal ikastolekin elkarlanean, Durangoko eragile andana aritu da Ibilaldiaren antolakuntzan, eta Berbarok ere parte hartu du familian jolasteko egun osoko tailerrak antolatuz 4 gunetan.



GUKAk • kide • k mahai-ingurua ant • latu dugu ekainaren 15erak •

EUSKALGINTZA ETA ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMANAZ ARIKO GARA

Ekainaren 15ean, arratsaldeko 19:00etan, hitzordua dugu Plateruenan. Manex Agirre, Arrate Gisasola eta Mikel Irizar gonbidatu ditugu euskalgintzaren eta erakundeen arteko harreman-aukereaz aritzeko, eta Jasone Agirre izango da saiko moderatzailea.

Mahai-inguru honekin, erakundeen eta euskalgintzaren arteko zubia eraiki gura dugu GUKAko kideok, eta, horretarako,

harreman hori jendaurrean hausnartzea izan daiteke gakoetako bat. Azken batean, bi aldeetakook ditugu antzeko erronkak, eta horiei aurre egiteko modurik onena elkarlanean aritzea da.

Ekitaldi irekia izango da; beraz, nahi duenak atek zabalik izango ditu. Gainera, berbaldiaren ostean, mokadutxoak jateko aukera egongo da Plateruenan bertan. Animatu!

EUSKALGINTZAREN ETA ERAKUNDEEN ARTEKO HARREMAN AUKEREZ

EKAINAK 15 / 19:00 / PLATERUENA KAFE ANTZOKIA



Manex Agirre
Garbelaletako Kuadrilako eustara teknikaria



Arrate Gisasola
Soraluzea Pl-plean euskaltzaleen elkarte koordinatzaile ohi



Mikel Irizar
Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizuntz berditasunerako zuzendaria

Moderatzailea: **Jasone Agirre**

guka



Berbaro Euskaltzaleen Topaguneko zuzendaritzan sartu da

Euskal Herriko euskara elkarten koordinazioa eta elkarlana sustatzen du Euskaltzaleen Topagunea. Bertako bazkide da Berbaro hasiera-hasieratik, eta aurtien, Topaguneko zuzendaritzan sartu da. Topaguneko zuzendaritza bertako bazkide diren euskara elkarteetako hainbat kidek eta Topaguneko hainbat langilek osatzen dute; tartean daude, honako hauek: Elena Laka, Mikel Arrasate, Iban Arantzabal, Jasone Mendizabal, Isabel Isazelaia, Oskar Zapata, Iker Martinez de Lagos, Irati Iciar eta Maite Berriozabal.

Berbaro haur eta gazte literatur egunean izan zen, Hazparnen

Maiatzaren 19an, Hazparnen izan ginen "Haur eta gazte literatur" egunean. Gure proiektuak aurkezteko gonbita egin ziguten, eta gogo handiz joan ginen bertara. Hainbat hizlari aritu ziren gurekin batera, hala nola Berriako kazetaria den Imanol Mercero, Ikas argitaletxeko ordezkariak eta Galtzagorri elkarte kideak. Pozik bukatu genuen topaketa, pozik agertu ziren partaideak. *Biziki maite dugu egiten duzuen, poztan gira zuek ezagutu izana*, erran ziguten.



Arrosa eta Arantza

Goizero, lanerako bidean, eskolara, lanera edota beste zereginetara doazen ume, gazte zein helduekin egiten dut topo.

Lanbidearen ajeagatik-edo, zein hizkuntzetan dabiltzan behatzen dut. Eskola-adineko gazte koadrilak erdaraz entzutea deigarria iruditzen zait. Denak gazteak, denak euskara eremuan ikasten dutenak. Berez, euskal hiztunak izan beharko lirakeenak, baina, hala ere, hizkuntzarekiko kontzientziarik ez dutenak.

Pasatu beharreko gripea izango delakoan, nire inpotentzia eta errua lasaitzen ahalegintzen naiz, "urte batzuk barru buelta emango diote" pentsatuz. Horra hor arantza.

Baina bada bistaz baino pixka bat gehiago ezagutzen dudan emakume bat; ez da Euskal Herrian jaio, ez ditu bere seme-alabak euskarazko eremuan hezi: ez etxean, ezta eskolan ere. Bere inguru osoa erdaldua da.

Egunero bere iloba txikia eskolara eramaten du. Ilobatxoari euskaraz berba egiten dio, eskolara bidean edo parkean dagoenean. Aginduak, aholkuak eta mimo guztiak euskaraz ematen dizkio; zin egiten dut. Ez dut emakumea agurtzen, baina irribarre egiten diot nire babesa adierazteko. Andreak kontzientzia du, transmititzen du, badabil. Eta, berarentzako da oraingoan ARROSA maiuskulekin.

Oraingoan ez dago argazkirik: kontzientziak ez du irudirik; jarrera kontua da.